


Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentak % 6,0 igo dira 2021. urte osoan

Urteko laugarren hiruhilekoan Merkataritzak ere joera positiboa izan du: urte arteko salmentak % 2,3 gehitu dira

2021. urte osoan, Merkataritzaren sektoreak (handizkako merkataritza, txikizkako eta ibilgailuen salmenta eta konponketa) % 6,0ko igoera izan du salmentetan prezio finkoetan, Eustatek landutako datuen arabera.

Bai handizkako merkataritzak, bai txikizkakoak emaitza positiboak izan dituzte 2021. urte osoan, aurreko urtearen aldean: % 9,2 eta % 3,6 hazi dira, hurrenez hurren. Aitzitik, Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa adarreko salmentak % 1,2 jaitsi dira 2021ean.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Salmenten susperraldia orokorra izan da lurraldeetan 2021. urtean. Araba nabarmentzen da, hartan prezio finkoetan % 7,0 hazi baitira salmentak. Bizkaian eta Gipuzkoan joera antzekoa izan da urtean zehar, salmentetan metatutako urteko igoerak % 5,9 eta % 5,6 izan baitira, hurrenez hurren.

Merkataritzaren sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua, bestalde, % 0,1 igo da 2021. urte osoan, aurreko urteko batezbestekoaren aldean.

2021eko laugarren hiruhilekoko datuak soilik aztertuta, Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentek % 2,3ko igoera izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, balio errealetan eta egutegiaren eragina zuzenduta.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaro-eraginak ezabaturik, Merkataritzaren sektoreak ere aurrerapena izan du, % 0,3koa, urteko azken hiruhilekoan, prezio finkoetan.

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaera positiboa izan da handizkako eta txikizkako Merkataritzan, % 4,6ko eta % 3,3ko urte arteko hazkundeeekin, hurrenez hurren. Ibilgailuen salmenta eta konponketaren sektorean, salmentak % 13,8 murriztu dira aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean.

2021eko laugarren hiruhilekoko urte arteko alderaketa positiboa izan da hiru lurraldeetan. Prezio finkoetako salmentak % 3,3 igo dira Gipuzkoan, % 2,1 Bizkaian eta % 0,9 Araban.

Azkenik, Euskal AEko Merkataritzako langile enlegatuen indizeak % 2,1eko aldakuntza positiboa izan du 2021eko azken hiruhilekoan, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; hala ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,1 jaitsi da.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2021/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	2,3	0,3	6,0
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-13,8	-3,0	-1,2
Handizkako merkataritza	4,6	0,5	9,2
Txikizkako merkataritza	3,3	1,1	3,6
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	0,9	0,4	7,0
Bizkaia	2,1	0,3	5,9
Gipuzkoa	3,3	0,2	5,6
EMPLEGUA	2,1	-0,1	0,1

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Otsailaren 14a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiunturako indizea

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, laugarren hiruhilekoko indizea % **94,10eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62